

Etxeko ospitalizazioa



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

Etxeko ospitalizazioa



ARGITARALDIA

LG D 00543-2025

ARGITARATZAILEA

Osakidetza. Araba kalea 45
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)



Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioa
Osakidetza

INTERNET

www.osakidetza.euskadi.eus

E-MAILA

coordinacion@osakidetza.eus

Agurra

Euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora azken hamarkadetan gizarteko hainbat esparrutan (VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021), eta lan mundua ez da salbuespena izan. Geroz eta gehiago dira euskara ikasi eta erabiltzen duten profesionalak, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak, edota ikasketak euskaraz egin dituztenak. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan, zehazki, profesionalen erdiek baino gehiagok daukate egiaztatuta hizkuntza-eskakizunen bat.

Nahiz eta aurrerapauso linguistikoak etengabekoak izan, langile asko ez dira oraindik egunerokotasunean euskaraz aritzera ausartzen, lanak eskatzen duen hizkuntza-maila teknikoagatik, segurtasun ezagatik zein ohitura faltagatik. Besteak beste, gabezia horiei erantzuteko onartu zen Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana (2022-2028).

Hain zuzen ere, ahulezia horri aurre egiteko ekarpena egin nahi dio Emakumeen Arretaren eskuliburu honek, eta III. Planak 8.2.2. atalean dioenari jarraikiz, gidak euskara planaren lehentasunak eta zerbitzu-erakundeetako beharrak bildu ditu.

Esan bezala, eskuliburu hau Osakidetzaren Euskara Zerbitzuak sortu eta osatu du, Elhuyar Aholkularitzak lagunduta, eta, jardun horretan, hainbat profesionalen ezinbesteko ekarpenak jaso ditu. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honen parte izan diren Osakidetzako langile guztiei, eta bereziki lantaldean parte hartu dutenei; izan ere, beraien laguntza eta ahaleginik gabe ezinezkoa litzaguke material hau osatzea.

Etxeko ospitalizazioa lantaldea:

- Iosune Guillen Blanco
- Oihana Ibarguren Agirre
- Naiara Irastorza Alvarez
- Argiñe Landa Fuentes
- Lide Larburu Gurruchaga
- Leticia Mancisidor Caballero
- Alaitz Olabe Sanchez
- Sare Itziar Retolaza Lorenzo
- Lur Sampedro Ruiz de Alegría

Euskara Zerbitzu Korporatiboa:

- Ane Arrieta Etxeberria
- Iñaki Beristain Agirre

*Gogoan izan gidaliburu honen asmoa euskara eguneroko lanean txer-
tatzea dela. Beraz, bertan agertzen diren gomendio eta aholkuak ez
dira hitzez hitz hartu behar eta betiere profesionalaren esku geldituko
da kasuan kasu hartu beharreko erabakia.*

Osakidetza-irizpideak

“Norbaiti ulertzen duen hizkuntza batean hitz egiten badiozu, mezua burura iritsiko zaio; bere hizkuntzan hitz egiten badiozu, bihotzeraino iritsiko zaio”.

Nelson Mandela



**NOLA ERABILI
HIZKUNTZA OFIZIALEAK OSAKIDETZAN?**

Herritarrek eskubidea dute nahi duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko.

● ESKATU BAINO LEHEN ESKAINI

Euskaraz egingo ditugu agurra eta lehendabiziko hitzak:
“Osakidetza, egun on?”.

● NOLA JARRAITU ELKARRIZKETAREKIN

BADAKIZU EUSKARAZ? Segi solasaldiak aukeratutako hizkuntzan.
EZ DAKIZU EUSKARAZ? Herritarrei egoera azaldu eta lankide euskaldun batengana bideratu, posible bada.

● IKUS-ENTZUNEZKO MEZUAK NOLA?

Megafoniako, erantzungailuetako eta txanda-pantailetak mezuak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz emango ditugu.

● IDATZIZ

Dokumentazio guztia elebiduna izango da. Dokumentazio pertsonalizatua, ordea, pazienteak aukeratutako hizkuntzan emango dugu.

● IRUDI KORPORATIBOA

Elebidunak izango dira errotuluak, kartelak, zigiluak, imprimakiak, intraneta, eta abar.

● KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA

Ziurtatuko dugu bi hizkuntza ofizialean jaso eta eska daitekeela informazioa.

● NOLA IDENTIFIKATU ZERBITZU ETA LANGILE ELEBIDUNAK?

Profesional/unitate elebidunak erraz identifikatzeko  bereizgarria erabiliko dugu. karaz eta gero gaztelaniaz emango ditugu.

● NOLA BERMATU PAZIENTEEN LEHENTASUNEZKO HIZKUNTZA?

- Ahozko harremanetarako zein hizkuntza ofizial nahiago duen galdetuko diogu, eta bere hizkuntza-aukera erregistratuko dugu. Euskara aukeratzen badu, bere izenaren ondoren  ikurra agertuko da, eta arreta euskaraz eskainiko diogu.
- Euskara aukeratu duen pazienteari, profesional euskaldunik nahi duen galdetuko diogu.

● ZERBITZU EDO UNITATEKO BURUEN ARDURA

Hizkuntzen erabilera-irizpide hauek langileei jakinaraztea eta irizpideon jarraipena egitea.

Aurkibidea

1. Hizkuntza finduz (gomendioak, gaizki-ulertuak, erabiltzeko esamoldeak...)	13
2. Zenbait egoera komunikatibo	19
• Bisitaren aurretik	20
• Bisitan	21
– Aurkezpena, harrera	21
– Informazioa jaso	22
– Informazioa eman	24
• Bisitaren ondoren	28
– Historia klinikoa	28
– Zerbitzuko bilerak	33
3. Hiztegia	35
• Akats arruntak	36
• Laneko ohiko hiztegia	41
– Asteko egunak	41
– Laburtzapenak	42
– Minak	44
– Gaixotasunak, sintomak, sentsazioak, sentimenduak...	45
– Probak, ekintzak	51
– Lanerako tresnak, gaiak, gailuak...	53
– Bestelakoak	54
4. Material lagungarria (hiztegiak, kontsulta-zerbitzuak, itzultzaileak...)	61

Etxeko ospitalizazioa

Osakidetza hizkuntza-irizpideak

“Norbaiti ulertzen duen hizkuntza batean hitz egiten badiozu, mezua burura iritsiko zaio; bere hizkuntzan hitz egiten badiozu, bihotzeraino iritsiko zaio”.

Nelson Mandela



**NOLA ERABILI
HIZKUNTZA OFIZIALEK OSAKIDETZAN?**

Herritarrek eskubidea dute nahi duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko.

● ESKATU BAINO LEHEN ESKAINI

Euskaraz egingo ditugu agurra eta lehendabiziko hitzak:
“Osakidetza, egun on?”.

● NOLA JARRAITU ELKARRIZKETAREKIN

BADAKIZU EUSKARAZ? Segi solasaldiak aukeratutako hizkuntzan.
EZ DAKIZU EUSKARAZ? Herritarrei egoera azaldu eta lankide euskaldun batengana bideratu, posible bada.

● IKUS-ENTZUNEZKO MEZUAK NOLA?

Megafoniako, erantzungailuetako eta txanda-pantailetako mezuak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz emango ditugu.

● IDATZIZ

Dokumentazio guztia elebiduna izango da. Dokumentazio pertsonalizatua, orde, pazienteak aukeratutako hizkuntzan emango dugu.

● IRUDI KORPORATIBOA

Elebidunak izango dira errotuluak, kartelak, zigiluak, imprimakiak, intraneta, eta abar.

● KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA

Ziurtatuko dugu bi hizkuntza ofizialean jaso eta eska daitekeela informazioa.

● NOLA IDENTIFIKATU ZERBITZU ETA LANGILE ELEBIDUNAK?

Profesional/unitate elebidunak erraz identifikatzeko  bereizgarria erabiliko dugu.karaz eta gero gaztelaniaz emango ditugu.

● NOLA BERMATU PAZIENTEEN LEHENTASUNEZKO HIZKUNTZA?

- Ahozko harremanetarako zein hizkuntza ofizial nahiago duen galdetuko diogu, eta bere hizkuntza-aukera erregistratuko dugu. Euskara aukeratzeko badu, bere izenaren ondoren  ikurra agertuko da, eta arreta euskaraz eskainiko diogu.
- Euskara aukeratu duen pazienteari, profesional euskaldunak nahi duen galdetuko diogu.

● ZERBITZU EDO UNITATEKO BURUEN ARDURA

Hizkuntzen erabilera-irizpide hauek langileei jakinaraztea eta irizpideon jarraipena egitea.



1. Hizkuntza finduz

(gomendioak, gaizki-ulertuak, erabiltzeko esamoldeak...)

Euskaraz

Garrantzitsua da lehen hitzak euskaraz egitea: euskaldunari atea irekiko diogu euskaraz jarrai dezan. Normalean, Etxeko Ospitalizazioko telefonoa administrariak hartu ohi du, hark egiten du harrera, eta oso garrantzitsua da haren papera edo jokabidea, batez ere euskaldunari aukera eman diezaiokeelako euskaraz artatua izateko. Harrera egitean:

- Etxeko Ospitalizazioko Zerbitzua. Egun on / Arratsalde on / Bai, esan.
- Eunate naiz, Etxeko Ospitalizazioko Zerbitzuko administraria. Zer nahi duzu?

Elkarrizketetan, jarraitu honako hizkuntza-gomendio hauei:

- Saiatu euskara hurbila erabiltzen. Ahal baduzu, egokitu hizkera solaskidearen arabera. Hizkera naturala eta ulerterraza erabili.
- Ez erabili hitanorik, solaskidea hasi ezean, behintzat.
- Solaskidearengandik urrun egonez gero, hurbildu.
- Ez itsutu zuzentasunarekin. Esaldi bat erraz eta zuzen ulertzeak garrantzi handiagoa du gramatika-arau guztiak ondo betetzeak baino.
- Tarteka, “lizentziaren bat” hartzea hobea da dena gaztelaniaz egitea baino.
- Erabili hitz ezagunak eta ulerterrazak. Hiztegia ez dadila oztopo izan. Izan beti buruan pazientea, eta erabili hitz ezagunak, gertukoak.
- Naturaltasunez jokatu eta, nahi izanez gero, hizkeraren inguruko aipamenak lasai egin: ez naiz batuan ondo moldatzen / euskara ikasten ari naiz / hitz egin motelago, mesedez...

Jarraibideak, gomendioak, aginduak... ematea

Etxeko ospitalizazioko langileok sarritan zer bait eginarazten edo egitera bultzatzen dugu, pazienteari edo senideei zer bait egiteko eskatzen edo agintzen diegu, eta, horretarako, agintera erabiltzen dugu. Agindu, gomendio, ohartarazpen edo dena delako horiek emateko, hainbat bide ditugu, guztiak ere oso erabilgarriak:

Agintera aditz nagusiarekin eta laguntzailearekin

- Biratu alde batera. / Bira zaitez alde batera.
- Deitu telefono honetara. / Dei ezazu/iezadazu telefono honetara.

“Behar” erabilita

- Pilula hauek hartu behar dituzu.
- Ez duzu erre behar.

“Komenigarria/garrantzitsua/premiazkoa da...” eta antzekoekin

- Komenigarria da aldian behin tenperatura hartzea.
- Garrantzitsua da medikamentua baraurik hartzea.
- Premiazkoa da beti errutina bati jarraitzea.

Urratsak adieraztea (denborazkoak)

Agindu edo aholkuak askotan urratsez urrats eman behar ditugunez, maiz erabiltzen ditugu denborazkoak, eta batzuetan komeni da forma bat baino gehiago erabiltzea:

Aurrekotasuna adierazteko: baino lehen(ago), aurretik, -t(z)erakoan...

- Tentsioa hartu aurretik / baino lehen / hartzerakoan laxatu besoa eta hartu arnasa sakon.

Gerokotasuna adierazteko: eta gero (aditzekin), ondoren, ostean, -takoan, -(e)nez gero...

- Goragalea pasatu ondoren/ostean, dieta lehorra egiten has zaitezke.

Berehalakotasuna adierazteko: bezain laster, eta berehala...

- Sukar altua duzula ikusi bezain laster, har ezazu pilula bat.

Aldiberekotasuna adierazteko: -(e)nean, -n bitartean, -t(z)ean, -t(z)eaz batera...

- Proba egiten hasten garenean, geldi-geldi egon behar duzu.

Maiztasuna adierazteko: -(e)netan, -(e)n bakoitzean, -(e)n gehienetan, -(e)n guztietan...

- Mina nabaritzen duzun guztietan/bakoitzean, egizu azaldu dizudan ariketa. da.

Denbora-maiztasuneko “-ero”

“-ero”/“-oro”/“-ro” atzizkiak maiztasun errepikatua adierazten du, zenbatean behin: orduero, egunero, astero, hamabostero, urtero..., baina betiere zenbatzailerik gabe. Zenbatzaileraren bat erabiliz gero, beste hauek erabili behar dira: -(e)an / -(e)tik / -(e)rik / -(e)z behin.

- Hiru astero* → Hiru astean behin, hiru astetik behin...
- Bi urtero* → Bi urtean behin, bi urterik behin...
- Bi orduero begiratu behar zaio* → Bi orduz/ordurik/ordutik behin begiratu behar zaio.
- Tratamendua sei hilero berritzen da* → Tratamendua sei hilean/hiletik behin berritzen da.

Pazienteak edo senideak lasaitzeko esamoldeak

Zer esaten den bezain garrantzitsua da nola esaten den edo zer adierazten dugun gorputzaren, aurpegiaren edo ahotsaren bidez: mugimendu neurtuak, ahots tonu lasaia eta gozoa, irribarrea ezpainetan, kontaktu fisikoa gertutasuna adierazteko... Denak laguntzen du hitzek bezainbeste:

- Lasai egon, ez jarri urduri.
- Ez larritu, ez da ezer eta.
- Egon trankil, momentu bat besterik ez da izango.
- Ez kezkatu, ez da ezer, eta segituan amaituko dugu.
- Ez arduratu, berehala egingo dugu.
- Ez duzu minik hartuko, egon lasai.
- ...

Sentimenduei edo beharrei buruzko galderak

- Nola/Zelan/Zer moduz (zaude)? Nola sentitzen zara? Zer sentsazio daukazu?
- Ondo/Ongi (al) zaude?
- Urduri (al) zaude?
- Baduzu minik? Mina (al) daukazu? Non? Nolakoa?
- Egarri/Hotz/Bero/Txizagura (al) zara? Egarriak/Hotzak/Beroak/Txizagurak (al) zaude?
- ...

Kontuz

- Komunikazio idatzietan, amaieran, ez erabili *agurrak** norbaiti adio esateko. Erabili hauek: *agur*, *agur t'erd*i, *agur bero bat*...
- Eskerrak emateko, ez erabili *eskerrik**. Erabili hauek: *eskerrik asko*, *mila esker*, *esker aunitz*...
- Aurrean ez dagoenari beste baten bidez bidaltzen zaizkion diosalak ez dira *agurrak**, baizik eta *goraintziak* edo *eskumuinak*.

2. Zenbait egoera komunikatibo

Bisitaren aurretik

Bisitatu beharreko pazienteekin edo zaintzaile/senideekin lehenengo harremana telefonoz izan ohi da, hitzordua adosteko, eta aurrerago ere bai, tratamenduaren segimendua egiteko. Hona hemen telefonoz aritzeko zenbait gomendio:

- Egin euskaraz lehen hitza beti, bai deitzerakoan, bai deia hartzerakoan, aurreiritziak edo irudipenak alde batera utzita. Zuk deituz gero, agurtu eta egin lehen hitzak euskaraz; solaskideak ez baldin badaki, adieraziko dizu, eta orduan pasatu gaztelaniara.
- Hitz garrantzitsuak azpimarratu edo errepikatu, polikiago esan eta ziurtatu solaskideak ulertu dituela.
- Utzi solaskideari ere hitz egiten.
- Asko edo luze hitz egin behar baldin baduzu, tarteka aldatu intonazioa eta erritmoa, hartu arnasaldiak.
- Telefono-zenbakirik eman behar baldin baduzu, esan zenbakiak banan-banan, hiruko edo biko taldetan: 943 00 79 99 (bederatzi-lau-hiru, zero-zero, zazpi-bederatzi, bederatzi-bederatzi).

► Telefonoz

Aurreko egunean ospitaletik alta emandako gaixoaren etxerako telefono-deia, bisitaren aurretik:

- Bai, esan?
- Kaixo, egun on. Urko naiz, etxeko ospitalizazioko medikua. Aliziaren etxea da?
- Bai, ni Gontzal naiz, Aliziaren senarra.
- Oso ondo, Gontzal. Zer moduz? Nola joan zen etxerako itzulera?
- Gaizki. Ufff... Mugitu samarra izan da. Uste genuen etxean hobeto egongo zela, baina ez dakit... Ez dut ondo ikusten, ezinegon handiarekin dago.
- Ados, lasai egon, goizean zehar pasatuko gara-eta.
- Badakizue ordua? Zer ordutan etorriko zarete?
- Zaila da ordua zehaztea, goiza nola doan, horren arabera izango da. Etxean egongo zarete?
- Printzipioz bai, baina enkargu batzuk egitera joan beharko dut momenturen batean: farmaziara, erosketa batzuk etxerako...

- Bada, zoaz orain, inporta ez bazaizu, lehen orduan, gu 11:00etatik aurrera pasatuko gara-eta. Hau da zuen helbidea, ezta? Kale nagusia 12, 2.a ezkerria.
- Bai, hala da.
- Oso ondo. Gero arte, orduan.

Aurreko egunean tratamenduan aldaketaren bat egin badiogu pazienteari:

- Egun on, Maialen.
- Egun on, bai.
- Miren naiz, etxeko ospitalizazioko medikua. Zer moduz pasatu zuen Lurdesek atzoko eguna tratamendu-aldaketarekin?
- Gaizki ikusten dut. Arratsaldea ondo pasatu zuen, baina gauean ezinegon handia izan du, alde batera eta bestera, ezin gelditu. Bi erreskate jarri dizkiot, baina, hala ere, gaizki ikusten dut, berriro sukar altua dauka eta burua pixka bat joaten ari zaio.
- Ados, saiatuko gara prestatu eta berehala pasatzen. Bien bitartean, bekokian zapi bustia jartzea komeni da. Sukarra jaisten lagunduko dio.
- Eskerrik asko, hemen egongo gara zuen zain.

Bisitan

Aurkezpena, harrera

Geure buruaren eta taldearen berri ematean (izenak, nondik gatozen...) saiatu konfiantzazko harremana eraikitzen. Izan ere, hasierako aurkezpen horrek asko erraztuko ditu geroko pausoak.

► Etxean

(Tinbrea jo ondoren)

- Bai?
- Ospitaletik gatoz. Zabaldur, mesedez.

(Atea zabaldur ondoren)

- Egun on.
- Aurrera, sartu. Zer moduz?
- Gu ondo. Eta zuek?

Etxeko ospitalizazioa

- Gu ere bai. Hor dago, pasilloaren amaierako gelan.

(Juliarengana gerturatu dira)

- Kaixo, egun on, Julia. Begira, hau Amaia da, erizaina, eta ni Natalia naiz, medikua. Hemendik aurrera gu izango gara zuen erreferentziazko kontaktuak. Zu orain etxeko ospitalizazio-zerbitzuan ingresatuta zaude. Etxean, baina ospitalean bezala.
- Etxean baina ospitalean? Nola da hori?
- Ospitalean bezala da, baina hemen, zuen etxean. Ospitaleko zerbitzu berbera ematen dugu, baina etxeko abantailekin: goxotasuna, erosotasuna, lasaitasuna, senideak edo gertukoak alboan, malgutasuna, giro ezaguna...
- Baina zuek ez zarete hemen egongo denbora guttian, ezta?
- Ez, gu behar denean etorriko gara, nola zauden jakiteko. Egunero egiten dugu lan, jaiegunetan eta asteburuetan ere bai. Bisitak goizez egiten ditugu; eta arratsaldez urgentziei bakarrik erantzuten diegu, normalean beste talde bat izaten da. Hau da gure ordutegia. Zalantzarik edo kezkarik izanez gero, deitu telefono honetara: 111 222 333. Ordutegitik kanpo, deitu beste telefono honetara: 333 222 111; eta beraiek lagunduko dizute.

Informazioa jaso

Elkarrizketa baten bidez, anamnesia egiten dugu, hau da, informazioa biltzen dugu pazienteaz, diagnostikoa egiteko: aurrekari pertsonalak, familiakoak, fisiologikoak edo patologikoak... Hori guztia historia klinikoan jasotzen dugu.

► Elkarrizketa

- Zer moduz etxean? Ondo sentitzen zara?
- Bai, oso ondo nago. Ondo zaintzen naute, eta lasaiago nago ospitalean baino.
- Badaukazu pozgarririk? Zerk alaitzen dizu eguna?
- Bai, seme-alaba guztiak hemen dabilta bueltan, eta tarteka iloba ere etortzen zait, bisitan. Horrek indarra eta poza ematen dizkit!
- Eta etorkizunean? Egoerak okerrera egingo balu, zer zenuke nahiago, hemen, etxean, geratu, gure laguntzarekin? Edo nahiago zenuke ospitalera joan?
- Etxean egon nahi dut, dudarik gabe, baina sufritu gabe.
- Horregatik lasai egon. Etxean ospitalean egiten den berdina egin dezakegu, berdin jokatu dugu, baina zure familiaren laguntzarekin, familiak lagundu egingo digu, dena hobeto eta gozoago joateko.

► Bisitan informazioa jasotzeko egiten diren galdera ohikoenak

Egoera eta azterketa fisikoa, sintomak

- Nola moldatzen zara mugitzeko? Erraz? Kostatzen zaizu? Zer da zailena edo nekosoena?
- Zer posiziotan egoten zara ondoen edo erosoan? Aldatzen duzu posizioa? Bakarrik edo lagunduta?
- Badaukazu minik? Zenbatekoa?
- Zer moduz egiten duzu lo? Deskantsatzen duzu? Nola esnatzen zara?
- Nola moldatzen zara libratzeko edo txiza egiteko? Lehor ibiltzen zara edo erraz egiten duzu?
- Zer moduz moldatzen zara jateko? Badaukazu apetiturik?
- Erraz hartzen duzu arnasa? Zailtasunen bat?
- Sumatzen duzu sukarririk? Badaukazu aparteko berotasunik?
- Nola daukazu larruazala? Badaukazu minik edo gorriunerik? Non? Zerbait ematen duzu? Kremaren bat edo...
- Botikaririk hartzen duzu? Zenbatean behin? Zuk hartzen duzu edo eman egiten dizute?

Egunerokoa

- Nola moldatzen zarete hemen, etxean? Zer martxa daukazue? Nola daukazue antolatuta ordutegia eta txandak? Nola moldatzen zarete zuen artean? Ondo?
- Nork laguntzen dizu? Etxekoek bakarrik? Badaukazu kanpoko norbaiten laguntzarik? Eta bisitarik izaten duzu? Norena?
- Nola sentitzen zara? Sumatzen duzu badaukazula norbait ondoan, laguntzeko? Babestuta sentitzen zara?

Alderdi emozionala

- Nolako harremanak daukazu ingurukoekin? Nola moldatzen zarete zuen artean? Izaten duzue haserrierik edo eztabaidarik? Zer dela-eta?
- Jasotzen duzu bisitarik? Senideenak, lagunenak...
- Egoera honetan, zerk beldurtzen edo kezkatzen zaitu? Zerbaitetik estutzen zaitu, bereziki?

Etorkizuna

- Badakizu zer datorren, zer gertatuko den? Zer espero duzu?
- Zenbateraino jakin nahi duzu edo inporta zaizu? Xehetasunak jakin nahi dituzu?
- Nola irudikatzen dituzu hurrengo egunak edo orduak?

Alderdi espirituala

- Zertan sinesten duzu? Badaukazu federik?
- Zerk lasaitzen zaitu?

Poza edo indarra

- Zerk laguntzen dizu aurrera egiten? Zerk ematen dizu indarra edo zerk pozten zaitu?

Pazientearen borondatea

- Egoera okertzen denean, non egon nahi duzu? Etxean edo ospitalean?
- Nolako tratamendua jaso nahi duzu? Zer bai eta zer ez?
- Norekin nahi duzu informazioa partekatu?

Informazioa eman

► Elkarriketa

Hezur-metastasiaren ondorioz hezurretan daukan mina kontrolatzeko eta bitartean sor daitezkeen beste sintomak kontrolatzeko ingresatu duen pazientearen kasua:

- Gure helburua apurka mina arintzea da. Horretarako, garrantzitsua da jakitea nolako eragina daukan jarri dugun tratamenduak, horren arabera egokituko dugulako.
- Baina honek mina berehala kenduko dit?
- Ez, mina astiro, pixkanaka, desagertuko zaizu, baina hobekuntza laster nabarituko duzu. Oso garrantzitsua da tratamendua azaldu dizugun bezala betetzea eta beharrezkoak dituzun dosi estrak apuntatzea, horien efektua eraginkorra den ala ez ere bai, eta horren iraupena (noiz hasten den mina arintzen eta zenbat irauten duen efektuak).
- Ondo da. Egunero etorriko zarete bisitan?
- Hasieran, astean birritan etorriko gara. Hala ere, telefonoz egunero deituko dizugu, eta beharren arabera, bisitan ere etorriko gara. Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, gogoratu telefono-zenbakiak hor daukazuela, utzi dizuegun orri informatiboan.
- Oso ondo.
- Zalantzaren bat daukazue?
- Ez, dena argi. Eskerrik asko!

► Erizainaren kasuan

Mina kontrolatzeko larruazalpeko bia edo bide bat hartu zaio pazienteari. Horren bidez, mina daukan bakoitzean, morfina jarri ahal izango du

- Orain, mina kontrolatzeko, “tximeleta” bat jarriko dizugu. Horren bidez, minerako medikamentua zuk zeuk zuzenean jarri ahal izango duzu edo, behar izanez gero, senideren batek. Tximeleta jartzerakoan, ziztada txiki bat nabarituko duzu, orratzarena. Baina gero orratza aterako dugu eta plastiko txiki bat geratuko da azalaren azpian, hortik medikamentua sartu ahal izateko.
- Oso ondo. Ulertu dut.
- (Zaintzaileari) Orain lehenengo dosia jarriko diogunez, hurbildu niregana, etorri, nola egiten den ikasteko, hemendik aurrera zuk egin ahal izateko.
- Nik? Nola! Ezin dut... Nola egingo dut nik... Ez dut neure burua gai ikusten hori egiteko, beldurra ematen dit.
- Lasai! Normala da hasieran beldurra ematea, baina uste duzuna baino errazagoa da, erraz egingo duzu; gainera, astiro azalduko dizut, eta zalantzarik izanez gero, esan lasai eta berriro azalduko dizut.

► Ohiko sintomak eta tratamendua

Lasaitzeko

- Urduri dagoenean edo egonezinik dagoenean, lasaigarria eman (adibidez, Midazolam edo laranja), larruazalpetik, mililitro bat, eta itxaron eragina nabaritu arte.
- Noiz nabarituko dugu eragina? Zenbat denbora behar da?
- 10-15 minutura. Igarriko duzue lasaitzen ari dela.
- Eta ez baldin bada lasaitzen?
- Hogei minutura edo, berdin jarraitzen duela ikusten baduzue, eman beste dosi bat.

Aho lehorra

- Batzuetan ikusten dut ahoa oso lehorra daukala. Zer egin behar dut, laguntzeko? Ezpainak urarekin busti?
- Horrelakoetan, eman ura limoiarekin, edo anana edo limoi zatitxo izoztuak. Horrek asko lagunduko dio, freskatu egingo dio ahoa, ikusiko duzu.

Azala

- Azala ondo izateko, ezinbestekoa da egunero hidratatzea.
- Eta hori nola egin behar da?
- Erabili krema hidratatzaileak; asko daude eta onak, gainera, erraz aurkituko duzu.
- Gorputz osoan emango diot? Edo bereziki nonbaiten?
- Kremak ez du kalterik egiten inon, baina arreta berezia jarri behar dugu gorputzeko atal batzuetan: gehiegizko presioa jasaten duten gorputzeko guneeetan.
- Gehiegizko presioa? Zer esan nahi duzu?
- Pazientea gora begira baldin badago, arreta jarri orpoetan, sakroan, okzipitalean eta eskapuletan; albora baldin badago, berriz, bereziki zaindu kanpoko orkatila, aldaka, sorbalda eta belarriak. Zeren gainean jartzen den, hori zaindu bereziki.
- Crema emateaz gain, beste zerbait ere komeni da?
- Bai, zauririk ez izateko, gomendatzen dugu beste batzuk ere erabiltzea, bereziki GAHOak (gantz azido hiper oxigenatuak) eta presioa txikitzen duten aposituak.
- Oso ondo. Eta komeni da gorputz-posizioa aldatzea? Zenbatean behin?
- Bai, aldatzea komeni da. 3-4 orduan behin gutxienez gorputza ahoz gora edo ahuspez jarri, albo baten edo bestearen gainean, altxatu eta etzan...

Pardela

- Zenbatean behin aldatu behar diogu pardela?
- Sarritan. Kaka eginez gero, komeni da pardela berehala aldatzea, kaka azidoagoa izan daitekeelako, batez ere biguna denean, eta horrek kalte handia egin dezakeelako azalean. Orduan, begiratu aldian behin, eta ikusiz gero libratu dela, aldatu.
- Oso ondo. Eta libratzen ez bada? Zenbatean behin?
- Zuek ikusi, begiratu tarteka nola dagoen, baina kontuan izan txizak hezetasuna eragiten duela eta horrek ez diola onik egiten azalari. Beraz, 2/3 ordutik behin, gutxienez, aldatu.
- Eta aldatzean, zerbait eman behar diogu?
- Bai, barrera-krema emateak on egiten dio azalari, eta ematea aholkatzen dugu.

► Zainketa aringarriak eta biziraupena

- Egun on, Mikel. Zer moduz? Nola sentitzen zara gaur? Sintoma berririk sumatu duzu?
- Hemen nago. Azkenaldian, jatea ere kostatzen zait. Ez dut ezertarako gogorik eta horrek kezkatzen nau.
- Zure medikazioa aztertuko dugu, dosia doitzeko. Normala da etapa honetan aldaketak nabaritzea. Horretaz gain, baduzu bestelako behar edo kezkarik?
- Beno... Gertatuko denaren beldur naiz, egia esan. Ez dakit nola jokatu.
- Erabat naturala da beldurra sentitzea, normala da. Zuri laguntzeko gaude gu hemen, zu ahalik eta erosoan sentiarazteko, eta ahalik eta bizi-kalitaterik onena izan dezazun. Ahal dugun neurrian, sufrimendua prebenitu eta arindu egingo dugu. Badago komentatu nahiko zenukeen gai zehatzik, bereziki kezkatzen edo arduratzen zaituenik?
- Batzuetan neure buruari galdetzen diot nola eta noiz izango den, zenbat denbora geratzen zaidan, nola izango den, eta ea prest ote nagoen.
- Lasai horregatik. Prozesu konplexua da, eta zaila da osorik aurreikustea, ezin da zehaztasunez iragarri, ez da erraza asmatzen. Hala ere, badira zenbait faktore estimazioa egiten laguntzen digutenak, besteak beste, gaur egungo zure osasun-egoera, sintoma-motak, etab. Horiekin jakin dezakegu etorkizunean zer gertatuko zaizun. Horrela, zure tratamenduari eta zainketei buruzko erabaki informatuagoak hartuko ditugu.
- Ados, eskerrik asko.

Bisitaren ondoren

Historia klinikoa

 Osakidetza	ABIZENAK: BADIOLA COUPEAU IZENA: GONZALO HELBIDEA: Kale Nagusia 7, 3B. Berasain (Araba)	
HISTORIA KLINIKOA		
Jaioteguna 1945/02/18	Sexua (G/E) G	G. Segurantzako zk. 1234567890
1. INGRESATZEKO ARRAZOA: Lerro batean.	- 80 urteko pazientea, LMAko (Lehen Mailako Arretako) medikuak Etxeko Ospitalizazioan ingresatua, etxean zainketa aringarria jasotzeko.	
2. AURREKARI PERTSONALAK: • Ohiko atalak (alergiak medikamentuei, arrisku kardiobaskularreko faktoreak, bihotz-eta arnasketa-patologiak, beste patologia nabarmen batzuk, ebaketa kirurgikoak...). • Historia onkologikoa (baldin badago). • Familia-aurrekari nabarmenak: gaixotasun hereditarioak edo kronikoak, beste osasun-arazo batzuk, heriotza goiztiarrak, medikamentuekiko erreakzio kaltegarriak... • Tratamendu eguneratua (gure ardurapean sartzean) • Egoera kognitibo eta funtzional basala.	- Penizilinari alergia. - Ohitura toxikoak: erretzaile ohia. Urteko pakete-indizea: 20. - Arrisku kardiobaskularreko faktoreak: hipertentsio arteriala, hiperkolesterolemia. - Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa GOLD 1E. Alfa 1 antitripsina: 156,90mg/dl. - Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoaren larriagotze-sindrome larria. 2024ko urtarrilean ospitalizatua, bronkoespasma larriarekin. Arnas gutxiegitasun akutua hiperkapnia arinarekin diagnostikatu zioten (CO2-ko presio partziala: 48mmHg). O2 asetasuna alta garaian % 95 (oxigeno gehigarririk gabe). - Ebakuntza kirurgikoak: eskuineko nefrektomia 2007. urtean (beste ospitale batean; ez dugu txostenik) ** Historia onkologikoa: - Eskuineko goiko lobuluko lobektomia, nodulu bakartiar baten ondorioz 2009an Nafarroako Unibertsitate Kliniketan. Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Onkologiako kanpo-konsultetan jarraipena 2014ra arte (5 urte errejidibadaturik gabe). - Egoera orokorraren narriadura-koadro baten ondorioz, 2024ko irailean biriketako kartzinoma mikrozitikoa diagnostikatu zioten 4. estadioan (gibeleko metastasia). * Kimioterapia 1. lerroa: CBDCA (AUC2) + Taxol 50mg/m2 (astero)	

2. AURREKARI PERTSONALAK	1. infusioa ingresatuta (2024/09/06) gibleko funtzioaren okerragotzea 2. infusioa ingresatuta (2024/09/13) - Onkologiako kontsultan baloratu zuten kimioterapiako 2. zikloa egin eta gero. Pazientea gero eta nekatuago zegoen, muturreko asteniarekin. Egunaren zati handi bat ohean ematen zuen, gainerakoa besaulkian. Esfortzu txikiko disnea zeukan, atsedenean desagertzen zitzaiona. Ez zuen minik. ECOG 3. - Ez dauka familia-aurrekari nabarmenik. - Tratamendu eguneratua: Omeprazol 20mg 0-0-1; Dexametasona 4mg 1-1-0; Lorazepam 1mg 0-0-1; Alprazolam 0.25 behar badu; Movicol behar badu; Amlodipino 10mg 0-0-1. Inhalagailuak. - Egoera kognitibo eta funtzional basala: funtzio kognitibo kontserbatua. Pazientea autonomoa zen azkeneko diagnostikora arte. Orain laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko zenbait jardueratarako.
3. EGUNGO EGOERA: Gaixotasunaren barruan, gaur egungo egoera, zerk ekarri duen gure ardurapean ingresatzera.	Biriketako minbizia diagnostikatu zaionetik bere egoerak okerrera egin du. Pixkanaka, eguneroko jarduerak autonomiaz egiteko gaitasuna galtzen ari da. Gaur egun, astenia dela-eta, ia egun osoa ohean ematen du. Gainera, kimioterapiaren albo-ondorio gisa, 3. mailako mukositis du; horregatik, ezin da ondo elikatu. LMAko mediku-erizainek jarritako tratamendua ez da eraginkorra izaten ari. Gainbehera progresiboa dela-eta, eta epe motzean okerrera egiteko probabilitatea kontuan hartuta, ingresatuta geratu da etxeko ospitalizazioko zerbitzuaren kargu.
4. ETXEKO OSPITALIZAZIOAN DUEN EGOERA: Bi alderdi baloratuko ditugu: ikuspegi SUBJEKTIBOA (gaixoak edo senideek adierazten dutena) eta OBJEKTIBOA (geuk ikusten duguna) BALORAZIO FISIKOA	Etxera joaten garenean pazientea emaztearekin eta lau seme-alabetatik hirurekin egoten da. Astenia handia duela-eta, ohean dago. Azken bi asteetan ia ez da jaiki, otordu-garaietan bakarrik. Egunaren erdia baino gehiago igarotzen du ohean. Sintoma nagusiak: astenia larria, disnea eta elikatzeko zailtasunak (tratamenduari erantzuten ez dion mukositisagatik). Horrek guztiak ondoeza eragiten dio, eta azkeneko astean ez da ondo lo egiten ari. Ez du beste sintomarik. Ez du minik. Diuresi-erritmo ona dauka. Egunero libratzen da libragarririk gabe. Karnofsky % 40 artatu dugun lehen egunean. Barthel 20 (mendekotasun larria).

4. ETXEKO OSPITALIZAZIOAN DUEN EGOERA:

- Larruazalaren egoera.
- Mina.
- Disnea, eztula, zotina, hemoptisisa, estertoreak.
- Beste sintoma batzuk: azkura, zorabioak, alerazio sentesorialak (dastamena, ikusmena...).

BALORAZIO EMOZIONALA:

- Angustia, beldurak, urduritasuna.
- Sinesmen espiritualak eta/edo erlijiosoak.
- Prozesuaren ezagutza, egia onargarria: pazienteak zer jakin nahi duen.
- Artapena, amaierakoak non: etxean, ospitalean, zentro soziosanitarioa. Azken egunetarako ingesatzea edo norabaitera eramatea nahi izanez gero, ezinbestekoa da aurretik paziente paliatiboaren alerta aktibatzea Osabiden eta hori idatzita jasotzea historia klinikoa, etxebizitzaren eta pazienteen gure datu-basean

BALORAZIOA

SOZIOFAMILIARRA:

- Estaldura, laguntza, zaintzaile nagusia(k) eta gainzamarako/etsitzeko arriskua.
- Etxebizitzaren egokitzapena, laguntzeko erremintak: komun egokitua, ohe artikulatua, gurgil-aulkia, beste osagarri batzuk...

Balorazio emozionala

Pazienteari hasieratik garbi hitz egin diogu gaixotasunaz eta pronostikoaz berak horrela nahi izan duelako.

Badaki heriotza gertu dagoela eta lasaitasunez hitz egiten du horri buruz. Pertsona erlijioso da eta horrek momentu honetan lagundu egiten dio. Pazienteari hasieratik garbi hitz egin diogu gaixotasunaz eta pronostikoaz berak horrela nahi izan duelako.

Badaki heriotza gertu dagoela eta lasaitasunez hitz egiten du horri buruz. Pertsona erlijioso da eta horrek momentu honetan lagundu egiten dio.

Ez dio beldurrik heriotzari; bai, ordea, sufrimenduari.

Bizitza ona izan duela dio, osatu duen familiaz harro. Bilobak hazten ez ikusteak pena eragiten dio.

Bizitzako azkeneko egunetan dagoen jakitun, ez du ospitalera joan nahi. Heriotza iritsi arte etxean artatzea nahi du, familiak lagunduta. Familia prest dago arreta etxean izan dadin.

Balorazio soziofamiliarra

Etxean bizi da emaztearekin. Orain arte ez dute laguntzarik behar izan.

Lau seme-alaba dituzte, herrian bertan. Laurek familia-negozioan lan egiten dute; beraz, erraztasuna dute lanetik irten eta pazientearen zainketez arduratzeko.

Ez dute kanpoko inor nahi etxeko lanetan edo pazientearen arretan laguntzeko, baina behar izanez gero, prest daude laguntza eskatzeko.

Ohe artikulatua daukate, baina beste egokitzapenik ez, autonomoak izan direlako. Baimena eman digute herriko gizarte-langilearekin harremanetan jartzeko, egokitzapenen balorazioa egin ahal izan dezaten.

MIAKETA FISIKOA

Sukarrik ez, PA: 100/60; BM: 60; O₂ asetasuna: % 97.

Kontziente eta orientatua. Elkarriketa koherentea du, baina arreta kentzen zaionean lokartu egiten da. Lasai dagoela dirudi.

Larruazalaren zurbiltasuna. Ez du arnas zailtasunik atsedenean.

Toraxa: bihotz-auskultazio erritmikoa. Biriketako auskultazioan aireztapen orokor ona. Sabelaldea: ez dugu ezer topatu. Behe gorputz-adarrak: ez dugu ezer topatu.

Larruazala egoera onean dauka. Ez du presio-ultzerarik.

Ahoko mukosan ultzerak ditu kimioterapiaren albo ondorio gisa.

5. PROBA OSAGARRIAK: Eginez gero, eta egindakoak, nabarmentzeko modukotzat jotzen baldin badira.	TAK TORAKOABDOMINALA (2024/08/23): zainbarneko kontrastea sartu ondoren egina. Ebakuntza osteko aldaketak goi-eskuineko lobektomiaren ondorioz bolumen-galerarekin (2017an bazeuden). Mediastino eta ezker hilioko adenopatiak. Azken horiek goi-ezkerreko lobuluko lesio polilobulatu batekin jarraipena dute, zeinak neoplasia iradokitzen duen (osagai adenopatikoa dagokiona ezin da ondo bereizi biriketako neoplasia berarekin). Gibeleko metastasi anizkoitza. Eskuineko nefrektomia, berreritze-ebidentziarik gabe.
6. IRITZI KLINIKOA, SINTOMA GIDARIAK	- Biriketako kartzinoma mikrozitiko barreiatua tratamendu aktibotik kanpo. - Zainketa aringarriak. - Giltzurrunetako neoplasiaren aurrekariak, berreritze-ebidentziarik gabe. - Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa gold 1E.
7. PLANTEAMENDU TERAPEUTIKOA Erabakiak hartzerakoan, kontuan izan beharreko puntuak: • Egoeraren edo gaixotasunaren barruan pazientea nola dagoen. • Bizitza-pronostikoa. • Pazienteak zenbateko informazioa daukan gaixotasunaren edo pronostikoaren gainean. • Balioak eta nahiak. • Familiaren ingurua identifikatu, baita horren nahiak ere. • Idatzita utzi zer erabaki den jarraitu beharreko tratamendu terapeutikoa, erabaki horretara nola iritsi garen eta beste profesionalen baten aldeko iritzia ere badaukagun.	Pazientea gaixotasunaren fase aurreratuan dago. Gaur egun esfortzu txikiko disnea eta muturreko astenia ditu. Horregatik, ia egun osoa ohean ematen du. Gainera 3. mailako mukositis du kimioterapiaren albo-ondorio gisa eta horrek jateko zailtasunak eragiten dizkio. Kimioterapiak beste albo-ondorio batzuk eragin dizkio: gibeleko hutsegite eta egoera orokorraren narriadura handia. Hori dela-eta, pazienteak jada ez du tratamendu kimioterapiko gehiago jasotzeko aukerarik eta onkologiako zerbitzutik alta eman diote. Ettxeko ospitalizazioan ingresatu aurretik, LMAko mediku eta erizainek artatu dute. Hasieran bere egoera orokorrak hobera egin zuen, batez ere kortikoideekin tratamenduan hasi zenean; ez, ordea, ahoko mukositisak. Hiru-lau aste geroago kortikoideekin tratamenduan egon arren, egoera orokorrak berriz ere okerrera egin zuen. Pazientea azken fasean dagoela-eta, gure zerbitzuan ingresatu dute. Pazienteak hasieratik informazioa guztia jaso du, gaixotasunari eta pronostikoari buruz. Berak erabaki du zein tratamendu jaso eta zein ez. Jakinarazi diogu jada ez dagoela tratamendu aktibo posiblerik, eta kontuan hartuta bere egungo egoera, bizi-iraupena bi-hiru astekoa izango dela.

7. PLANTEAMENDU TERAPEUTIKOA	Gazte zela, familia-negozio bat sortu zuen bere anaia batekin batera. Gaur egun negozioa bere seme-alabek daramate. Beti izan da oso pertsona familiarra, eta bere gaixotasuna fase aurreratuan dagoela jakinda, argi dauka bere azkeneko egun/asteak etxean igaro nahi dituela emazte eta seme-alabekin. Lasai dagoela dio. Familia polita sortu du eta orain dela bi hilabetera arte oso bizitza-kalitate ona eduki duenez, gustuko dituen gauzak egiteko aukera eduki du. Ez dio beldurrik heriotzari; bai, ordea, heriotza iritsi bitartean ager daitezkeen sintomei: minari. Sufrimendua ekiditeko, gure esku dagoen guztia egiteko eskatu digu, baita bere familiartekoen sufrimendua arintzeko ere. Beste era batera kontrolatu ezin diren sintomak agertuko balira, sedazio aringarria ezartzeko eskatu digu. Familia ados dago pazientearen erabakiarekin eta bidean lagun izango ditu.
8. EBOLUZIOA ETA OHARRAK	Irakuzketak pautatu dizkiogu formula magistral batekin, eta bi asteren buruan ahoko mukositisak nabarmen hobera egin du. Hala ere, pazienteak behar baino gutxiago elikatzen da. Likidoak ondo hartzen ditu. Elikagaiak/Pilulak irensteko duen zailtasuna kontuan hartuta, lehenengo egunetik larruazalpeko bidea hartzea proposatu diogu, erreskateko medikazioa beharko balu, bide hori erabili ahal izateko. Ingresuko lehen egunetan gauez lo egiteko medikazioa jartzeko baino ez da erabiltzen larruazalpeko bidea. Egunak igaro ahala, atsedeneko disnea arintzeko, morfina-erreskateak erabiltzen hasi da beharra sentitu duenean (larruazalpeko bidetik). Egunak igaro ahala, disneak okerrera egin du eta morfina beharra handiagotu denez, infusore batean jarri zaio larruazalpeko bidetik, 24 orduz pasa dadin. Disneak okerrera egin du eta gero eta morfina gehiago eskatzen du. Sintomaren errefraktariotasuna dela-eta, pazientearen nahiak kontuan hartuta eta senideekin adostuta, agonia-egoeran sedazio aringarria jartzea erabaki da. Pazienteak bere etxeko goxotasunean hil da, senideen babesean (2024/10/30).
ALTA EMATERAKOAN TRATAMENDUA ETA AHOLKUAK (egokia baldin bada)	

Zerbitzuko bilerak

Etxeko Ospitalizazioko zerbitzuan sarri egiten ditugu bilerak, informazioa edo nobedadeak konpartitzeko, segimendua egiteko, gorabeheren berri eman eta jakiteko, eguneratzeko...

Tokian tokiko egoera eta hizkuntza-ezagutza edo -gaitasuna zein den, bilera horiek euskaraz izan daitezke, osorik edo neurri batean, eta pixkanaka eta elkarrekin egin dezakegu normalizazio-bidea.

► Pazientearen berri

Paziente paliatibo baten bisita osteko bilera.

– Nola ikusi duzu(e) Luis?

(Ohikoena da galderaz galdera ez joatea, paziente bisitatu duen lankideak zuzenean erantzuna egituratuta dauka, eskemari jarraituz):

- Zer moduz deskantsatu du?
- Mina kontrolatuta dauka?
- Zenbat erreskate behar izan ditu?
- Jaten ari da? Ondo onartzen du janaria?
- Diuresia eta eginkariak mantentzen ditu?
- Badauka arnas sintomatologiarik (arnasestua, eztula, karkaxa edo flemak...)?
- Badauka edemarik?
- ...

Gaixotasunaren arabera, sintoma desberdinetan zentratuko gara:

- Nola daude zauri edo gailuak (zainaren barneko edo larruazalpeko kateterra, ostomia, drainatzea...)? Ondo daude?
- Nola daude paziente eta ingurukoak? Nolakoa da beraien egoera emozionala? Egokituta daude egungo egoerara? Beraien emozioak kanporatzen dituzte? Laguntza psikologikoa behar dute? Zer fasetan daude?
1) Ukapena 2) Haserrea 3) Tristura 4) Negoziatzia 5) Onarpena...

3. Hiztegia

Akats arruntak

Froga

Zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio du: delituaren frogak, frogaren argudioak, etab.

Proba

Besteak probak dira: liburuaren lehen probak, azterketa-probak, unibertsitatera sartzeko probak, idi-proba, DNA-proba, proba nuklearrak, etab.

Gorputz

Gizakien eta animalien materialen osagarria.

Gorpu

Gorputz hila, bereziki gizakiarena. Hilotza.

Mediku

Izena da, pertsona (sendagilea edo osagilea): “Medikuari deitu diot”.

Mediko

Izenondoa da, izenarekin batera erabiltzen da: “Azterketa medikoa egin du”.

Berreskuratu

Egokia da “galdu zena berriz eskuratu” esan nahi denean. Beste adibide batzuk: aginpidea berreskuratu, galdutako euskara berreskuratu.

Osatu

“Bere onera etorri” esanahiarekin, egokiagoak dira “oneratu”, “osatu (sendatu)”, etab.

Erizaindegi

Erizainek lan egiteko lekua.

Erizaintza

Erizainen lanbidea.

Episodio, gertakari, gertaera, gorabehera eta intzidentzia

- Osabide Globalen erabiltzekoa bada edota *episodio clínico* bati buruz hitz egiteko, “episodio” erabiliko dugu euskaraz. Beste edozein kasutarako (hau da, gertaeraren sinonimo denean), “gertakari” erabili behar da.
- Gorabeherak eta kontrako gertaerak erregistratu eta jakinarazteko sistemari (gaztelaniazko *Sistemas de registro y notificación de incidentes y eventos adversos*) lotutako testuinguruetan, *incidente* beti izango da “gorabehera”. *Suceso* edo *evento*, berriz, beti “gertaera”.
- “Intzidentzia” hitza CAUrekin erlazioatutako testuingururako gordeko da, *incidencia* adierazteko.

Anbulatorio

Osasun-etxea, edo osasun-zerbitzu eta tratamenduez mintzatuz, eria ospitalizatu gabe ematen dena: kirurgia ambulatorioa.

*Anbulategi

Anbulategi* hitza ez dago ondo sortua, erdal hitz mozorrotua da: anbulat* hitzik ez dagoenez euskaraz, horren gainean ezin da hitz eratorririk sortu.

Deribatu

Hizkera sanitarioan, “deribazio” hitzak berezko esanahia du, “bideratu” hitzetik haragokoa: administrazio sanitarioan egiten den izapide bat da. Honela defini daiteke: paziente bat, kontsultarteko bolante baten bidez, beste profesional batengana bidaltzea, arreta osagarria eskaintzeko diagnostikoari, tratamenduari eta errehabilitazioari dagokienez. Esaterako, “Lehen Mailako Arretako familia-medikuak Ospitaleko Arretara deribatzen ditu pazienteak”.

Bideratu

Euskaltzaindiak esanahi orokorra ematen dio “bideratu” aditzari, eta “deribatu” hizkera espezifikotarako gordetzen du.

Heziketa

Hitz hauen arteko aldea oso lausoa den arren, bada bien arteko desberdintasun bat. “Heziketa” orokorra da, jendea heztean datza, balioak transmititzean. “Hezkuntza” baino praktikoagoa da.

Hezkuntza

“Hezkuntza” akademikoagoa da “heziketa” baino. Nolanahi ere, egia da hezkuntza ematen duen pertsona batek heziketa ere ematen duela.

Emergentzia

Emergentziak (*Emergencias*, gaztelaniaz) zerbitzu-erakundea da Osakidetzan. Emergentziek anbulantziak, 112 eta beste kudeatzen dituzte. Beraz, erakunde hori izendatzeko eta bertan egiten diren jardueri erreferentzia egiteko erabiliko da hitz hori. Adibidez, “Anbulantzia emergentzia batera joan behar izan da, sutan zegoen etxe batera”.

Larrialdi

Larrialdiak (*Urgencias y/o emergencias*, gaztelaniaz) Etengabeko Arreta Guneetan eta ospitaleetan dauden unitateak/zerbitzuak dira. Hortaz, Osakidetzan erabiltzen diren irizpideak bateratzeko, aurrerantzean, Larrialdiak hobetsiko da unitate/zerbitzu horri erreferentzia egiteko. Zenbait kasutan gaztelaniazko *emergencia* hitza ordezkatzeko erabiltzen da larrialdi: Salida de emergencias → Larrialdietako irteera; Dispositivo de emergencias → Larrialdietako gailu.

Farmazia

Botika eta farmazia sendagaiak prestatzen edo saltzen diren etxea dira eta, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera sinonimotzat har badaitezke ere, Osakidetza-zen testuetan, “farmazia” hitza hobetsiko dugu.

Botika

Osakidetza-zen testuetan, “farmazia” hitza hobetsiko dugu. Medikamenturen sinonimotzat erabil daiteke.

Zaintza

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera “zaintza” eta “zainketa” sinonimoak badira ere, Osakidetza-zen testuetan bata eta bestea esanahiaren arabera bereiztea proposatzen dugu. “Zaintza” jagoletzari eta babesari dago lotuago (zaintza epidemiologikoa, zaintza partekatua...); gaztelaniazko *vigilancia* eta *custodia* adierazteko erabiltzen da, batik bat.

Zainketa

Zainketak erizainek, mendekotasunak dituzten pertsonen zainketaileek eta bestelakoek ematen dituzte (hau da, gaztelaniazko *cuidados* hitzaren pareko).

► Euskara ez-sexista

Hizkuntzak, berez, ez dira sexistak, hiztunek eragiten dute sexismoa, hizkuntza egoki edo behar bezala ez erabiltzeagatik. Euskaraz, badira zenbait alderdi bereziki zaindu beharrekoak gure hizkera inklusiboagoa izateko:

- Generoa aditzean: hitanoa erabiltzean, markatu egiten da nori zuzentzen ari gatzazkion.
- “Gizaki” da genero-markarik ez duena, eta ez “gizon”. Kontuz honelakoekin: gizon portatu, legegizon, plazagizon...
- Euskaraz, hainbat izenek generoa daukate: semea, alaba, aita, ama... Arazoa sortzen da batzuetan horien plurala edo generikoa erabiltzean: Zenbat seme dituzu? → Zenbat seme-alaba dituzu? Umearen aitek esan dute → Umearen gurasok esan dute. Dena den, saiatu genero markaturik gabeko hitzak erabiltzen.
- Gaztelaniaz, maskulino generikoa saihesteko estrategia batzuk ez dira beharrezkoak euskaraz: La persona interesada → Pertsona interesduna (desegokia) → Interesduna (egokiagoa).

► Desgaitasunak

“Desgaitasunak dituzten pertsonak” adierazpidea erabiltzea gomendatzen da, “desgaitu” izen huts gisa erabili beharrean, hau da, “pertsonak” terminoa beti aurretik jartzea. Izan ere, desgaitasuna ez da pertsonari gertatzen zaion zerbait, baizik eta ezaugarri partikularrak dituen pertsona baten eta beraren ingurunearen arteko emaitza.

“Minusbaliatu” (minusbaliatasuna), “ezindu” (ezintasuna), “elbarri”, “ezgaitu” eta gisa bereko adierazpideak ez dira egokiak, konnotazio peioratibo nabariak dituztelako eta ez dutelako zentzua ondo islatzen. Ildo beretik, ez dira erabili behar “Minusbaliatuentzako komunak”, “Minusbaliatuentzako aparkalekuak” eta antzeko esapideak. Desgaitasuna duten pertsonen erabiltzeko egokitutako zerbitzu horiek aipatzeko, egokiagoa eta zuzenagoa da “Komun irisgarriak” edo “Aparkaleku irisgarriak” esatea.

Desgaitasunik ez duten pertsonak aipatzeko, ez da erabili behar “normal” terminoa. Hobe da “desgaitasunik gabeko” adierazpidea erabiltzea. Desgaitasunari buruzko ikuspegi alternatibo bat azpimarratu nahi denean, beste termino batzuk erabili ahal dira: dibertsitate funtzional, bestelakotasun funtzional edo bestelako gaitasun (*diversidad funcional*, gaztelaniaz).

Ez nahasi “desgaitasun” eta “mendekotasun”: mendekotasuna egoera bat da, eta desgaitasunen bat daukaten pertsonen ez dute zertan mendekotasun-egoeran egon.

► Osasun mentalaz

Oso garrantzitsua da osasun mentalaz ari garenean hitz egokia erabiltzea eta osasun mentalaren zainketa bultzatzen duen informazio positiboa ematea. Ez lotu ezinbestean gaixotasun mentalak eta desgaitasuna, ezta gaixotasun mentalak eta mendekotasuna ere. Gaixotasun mentala duten batzuek, noizten duten gaixotasunaren ondorioz, desgaitasuna edota mendekotasuna izan dezakete, baina ezin da orokortu. Beraz, ez dira “desgaitu” edo “mendeko” hitzak erabili behar nahasmendu mentalak dituzten pertsonen erreferentzia egiteko. “Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak” edota “nahasmendu mentala duten pertsonak” adierazpideak erabiltzea gomendatzen da, “gaixo mentalak” erabili beharrean; hau da, hobe da “pertsonak” terminoa beti jartzea. Izan ere, gaixo mentalez hitz egitean pertsonaren ezaugarri bakarrera mugatzen da arreta, ez pertsonengan.

“Gaixotasun mental” terminoak neutroa dirudi, baina pertsonari leporatzen zaizkion estereotipo negatibo asko dakartza berekin. Hori dela-eta, hobe da “osasun mentaleko arazo” edo “nahasmendu mental” terminoak erabiltzea. Hiztegiari jasotako esanahiaz harago, hobe da gaixotasunaren izena pertsonari erreferentzia egiteko substantibo gisa ez erabiltzea, nahasmenduak ez baitu definitzen pertsona. Hau da, ez dira “eskizofreniko”, “anorexiko”, “depresibo” eta antzeko hitzak erabili behar pertsonak definitzeko: Eskizofrenikoa oihuka atera zen gelatik, irainka → Eskizofrenia zuen pazienteak oihuka atera zen gelatik, irainka: Anorexikoarekin hitz egin zuten → Anorexia duen mutilarekin hitz egin zuten.

Halako arazoak dituzten pertsonak osasun mentaleko zentroetara joaten dira, ospitale psikiatrikoetara, ospitaleko psikiatria-zerbitzura, eguneko ospitaleetara edota errehabilitazio-zentroetara. Zentro horiei buruz hitz egiteko hobe da “eroetxe” eta “zoroetxe” hitzak ez erabiltzea.

► Zahartzaroz

Zahartzea ez da gaixotasun bat; beraz, ez dira adina eta mendekotasuna lotu behar. Mendekotasuna egoera bat da, ez izaera bat, eta, gainera, mendekotasun-egoerak haur, gazte eta helduengan ere gerta daitezke. Beharrezkoa ez bada, hobe da pertsonen adina ez kalifikatzea; besteak beste, “70 urteko adinekoa” esan beharrean, askotan nahikoa da “70 urteko pertsona” esatea.

Nahikoa adina duten pertsonak definitu beharra badago, Osakidetzan adinekoak, adinduek edota (pertsona) nagusiak hitzak hobesten dira, ez zaharrak. Zahartzaroa lan-egoerarekin lotzen da, baina ez da egokia, eta, horregatik, hobe da adineko jendea izendatzeko “jubilatuak”, “erretiratuak” edo “pentsiodunak” hitzak ez erabiltzea. Horrez gain, batzuetan, gaztelaniazko *tercera edad* eufemismoa euskaratu nahian, “hirugarren adina” esaten zaio zahartzaroari euskaraz. Hobe da halakoak ez erabiltzea.

Laneko ohiko hiztegia

Ohar orokorrak

- Hemen ez azaltzeak ez du esan nahi hitz edo ordain hori erabili ezin denik (adibidez, sinonimoak, euskalkietako ordainak eta abar).
- Hitzak mugagabeen daude, eta mugatu egin behar dira erabiltzean.
- Hitz batzuek beste esanahi batzuk ere badauzkate: *cura* izan daiteke “sendaketa”, baina “apaiz” ere bai; *dirección* izan daiteke “helbide”, baina baita “zuzendaritza” ere; *instrucción* euskaraz “jarraibide” da, baina baita “eskolatze” ere...
- Kontuan izan hitz batzuk berdinak edo oso antzekoak direla: dieta, sintoma, ultzera... Batzuetan, egokitzapen txiki batzuekin, nahikoa da euskaraz emateko.

Asteko egunak

ASTEKO EGUNAK	MENDEBALDEKO HIZKERETAN	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
astelehen (al.)	astelehen	laborable	lanegun
astearte (ar.)	martitzen	festivo	jaiegun / festa-egun
asteazken (az.)	eguazten	de descanso	atseden-egun
ostegun (og.)	eguen	hábil	baliiodun
ostiral (or.)	bariku / egubakoitz	inhábil	baliogabe / ezegun
larunbat (lr.)	zapatu	natural	natural / egutegi-egun
igande (ig.)	domeka	natural	natural / egutegi-egun

Laburtzapenak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
AGHO (Acidos Grasos Hiper Oxigenados)	GAHO (Gantz Azido Hiper Oxigenatua)
BED (Boletín Estadístico de Defunción)	HBE (Heriotzaren Buletin Estatistikoa)
CMD (Certificado Médico de Defunción)	HMZ (Heriotzei Buruzko Mediku Ziurtagiria, Medikua- ren Heriotza-Ziurtagiria, Heriotzaren Mediku-Ziurtagiria, Heriotza-Ziurtagiri Medikoa)
DM (Diabetes Mellitus)	DM (Diabetes Mellitus-a)
ENA (Escala Numérica Analógica) / EVA (Escala Visual Analógica)	ENA (Eskala Numeriko Analogikoa) / EBA (Eskala Bisual Analogikoa)
EPOC (Enfermedad Pulmonar Obstructiva Crónica)	BGBK (Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa)
ESAS (Escala Edmonton Symptom Assessment System)	ESAS (Edmonton Symptom Assessment System Eskala)
EV (endovenoso/a)	ZB (Zain Barnekoa)
HTA (hipertensión)	HTA (Hipertentsioa)
ICC (Insuficiencia Cardíaca)	BG (Bihotz-Gutxiegitasuna)
OMS (Organización Mundial de la Salud)	OME (Osasunaren Mundu Erakundea)
PAC (Punto de Atención Continuada)	EAG (Etengabeko Arreta Gunea)
PEG (Gastrostomia Endoscópica Percutánea)	PEG (larruazalean zeharreko gastrostomia endoskopiko)
PIA (Plan Individualizado de Atención)	API (Arreta Plan Indibidualizatua)
Plan Individualizado de Atención	Ariengarrietako Pazienteentzako Arreta Plan Indibiduala
PP (Paciente Paliativo)	PP (Paziente Paliatiboa)
PPI (Índice de Pronóstico Paliativo)	PPI (Pronostiko Paliatiboaren Indizea)

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
RAO (Retención Aguda de Orina)	GEA (Gernu-Erretentzio Akutua)
ROP (Rotación de opioides)	OP (Opioideen Errotazioa)
SAPU (Servicio Atención al Paciente y Usuario/a)	PEAZ (Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta-Zerbitzua)
SNG (Sonda Nasogástrica)	ZNS (Zunda Nasogastrikoa)
TA (Tensión Arterial)	TA (Tentsio Arteriala)
TAC (Tomografía Axial Computerizada)	OTA (Ordenagailu Bidezko Tomografia Axiala)
TADE (Tratamiento Antimicrobiano Domiciliario Endovenoso)	MAZBET (Mikrobioen Aurkako Zain Barneko Etxeko Tratamendua)
TEP (Tromboembolismo Pulmonar)	BTE (Biriketako Tronboenbolismoa)
TIS (Tarjeta Individual Sanitaria)	OTI (Osasun-Txartel Indibiduala)
TVP (Trombosis Venosa Profunda)	ZST (Zain Sakonetako Tronbosia)
VIH (Virus de Inmunodeficiencia Humana)	GIB (Giza Immunoeskasiaren Birusa)

Minak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
dolor abdominal	abdomeneko min
dolor agudo	min akutu / min zorrotz
dolor basal	min basal
dolor costal	kostalgia / saihetseko min
dolor crónico	min kroniko
dolor idiopático	min idiopatiko
dolor incidental	ustekabeko min
dolor irruptivo	min irruptibo
dolor neuropático	min neuropatiko
dolor nociceptivo	min nozizeptibo
dolor por espasmo muscular	muskulu-espasmoaren ondoriozko min
dolor por hipertensión intracraneal	garezur barneko hipertentsioaren ondoriozko min
dolor por metástasis ósea	hezur-metastasiaren ondoriozko min
dolor psicógeno	min psikogeno
dolor somático	min somatiko
dolor visceral	erraietako min

Gaixotasunak, sintomak, sentsazioak, sentimenduak...

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
acorchamiento	sorgortze
agitación	asaldura
agonía	agonia
ahogo	itolarri/itotasun/itobehar/itoaldi
alcoholismo	alkoholismo
alteración sensorial	alterazio sentsorial
alucinación	haluzinazio
angustia	angustia/larritasun
ansiedad	antsietate
apetito	jateko gogo/apetitu
astenia	astenia
bienestar	ongizate
boca seca	aho lehor
bronquitis	bronkitis
bulimia	bulimia
cáncer	minbizi
cansancio	neke
cefalea	zefalea
cistitis	zistitis
cólico	koliko
colitis	kolitis
compasión	erruki/gupida
constipado/resfriado	hotzeri / burutik beherako / marranta
convulsión	konbultsio

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
delirio	eldarnio/delirio
depresión	depresio
dermatitis	dermatitis
desasosiego	urduritasun / larritasun
desnutrición	desnutrizio
deterioro cognitivo	narriadura kognitibo/ezagutzaren narriadura
diabetes	diabetes
diarrea	beherako/sabeleko
disfagia	disfagia
disfunción gastrointestinal	disfuntzio gastrointestinal
disnea	disnea/arnasestu
diuresis	diuresi
dolor de pecho / mastalgia	mastalgia / bularreko min
embolia	enbolia
empatía	enpatia
enfermedad congénita	sortzetiko gaixotasun
enfermedad de la piel	azaleko gaixotasun
enfermedad de la sangre	odoleko gaixotasun
enfermedad de los sentidos	zentzuen gaixotasun
enfermedad del aparato locomotor	lokomozio-aparatuaren gaixotasun
enfermedad del sistema cardiocirculatorio	bihotzaren eta zirkulazio-sistemaren gaixotasun
enfermedad del sistema central	nerbio-sistema zentralaren gaixotasun
enfermedad del sistema digestivo	digestio-sistemaren gaixotasun
enfermedad del sistema genitourinario	sistema genitourinarioaren gaixotasun

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
enfermedad del sistema inmunológico	sistema immunologikoaren gaixotasun
enfermedad del sistema respiratorio	arnas sistemaren gaixotasun
enfermedad endocrina	gaixotasun endokrino
enfermedad infecciosa	gaixotasun infekzioso
enfermedad neurodegenerativa	gaixotasun neurodegeneratibo
enfermedad terminal	gaixotasun terminal
epilepsia	epilepsia
esguince	zaintiratu/bihurdura/bihurritu
estertor	estertore/koroka
estreñimiento	idorreri
estrés	estres
faringitis	faringitis
fractura	haustura
gastritis	gastritis
gripe	gripe
halitosis	halitosi
hematoma	hematoma
hemoptisis	hemoptisis
hemorragia	hemorragia / odoljario
hemorroide	hemorroide
hepatitis	hepatitis
herida	zauri
herpes	herpes
hipertensión	hipertentsio

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
hipo	zotin
hongo	onddo
hormigueo	inurridura
ictericia	ikterizia / horitasun / min hori
infarto	infartu/bihotzeko
infección	infekzio
inflamación	hantura
insuficiencia cardiaca	bihotz-gutxiegitasun
insuficiencia renal	giltzurrun-gutxiegitasun
insuficiencia respiratoria	arnas gutxiegitasun
intoxicación	intoxikazio / pozoitze
irritación	narritadura
laringitis	laringitis
lesión	lesio
leucemia	leuzemia
malestar	ondoez
malformación	malformazio
mareo	zorabio
mastalgia / dolor de pecho	mastalgia / bularreko min
mastitis	mastitisa
meningitis	meningitis
metástasis	metastasi
meteorismo	meteorismo
miedo	beldur/izu

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
migraña	migraina
mioclonía	mioklonia
nausea	goragale/gonbitalarri
nefritis	nefritis
neoplasma	neoplasma
neumonía	pneumonia / biriketako min
obesidad	obesitate
osteoporosis	osteoporosi
otitis	otitis
pancreatitis	pankreatitis
peritonitis	peritonitis
prurito	azkura / prurito
psoriasis	psoriasi
quemadura/quemazón	erredura/erre
quiste	kiste
resfriado/constipado	hotzeri / burutik beherako / marranta
retención urinaria	gernu-erretentzio
ronquera	erlats/marranta
rubéola	errubeola
sarampión	elgorri/txarranpin
síndrome de aplastamiento gástrico	zapaltze gastrikoaren sindrome
sinusitis	sinusitis
somnolencia	logura/logale
soplo	murmurio

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
sordera	gortasun/gorreri
sueño / ganas de dormir	logale/logura
sufrimiento vital	bizi-sufrimendu
taquicardia	takikardia
tétanos	tetanos
torcedura	bihurritu/bihurdura
tortícolis	tortikolis
tos	eztul
toxicomanía	toxikomania
tranquilo	lasai
trastorno del sueño	loaren nahasmendu
traumatismo	traumatismo
trombosis	tronbosi
tumor	tumore
tumoración	hantura
úlceras por presión	presioko ultzera/presio-ultzera
vértigo	bertigo

Probak, ekintzak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
arreglarse (adecentarse)	apaindu/txukundu
arreglarse (desenvolverse)	konpondu/moldatu
colaboración	lankidetza
cuidado curativo	zainketa sendagarri
cuidado paliativo	zainketa aringarri
cura	sendaketa
deambular	noraezean ibili
deposición	libratze / kaka egite
derivar	bideratu
desvestirse	(arropak) erantzi
extracción	erauzketa
ingestión	ingestio/ahoratze
ingresar	sartu
ingreso hospitalario	ospitaleratze
medicación	medikazio
micción	gernu egite
nutrición enteral	nutrizio enteral/elikadura enteral
nutrición parenteral	nutrizio parenteral/elikadura parenteral
ostomía	ostomia
paracentesis	parezentesi
percusión leve	perkusio arin
poner en común	bateratu
prueba complementaria	proba osagarri

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
prueba cruzada	proba gurutzatu
reagudización	larriagotze
rescate	erreskate
sedación en agonía	agoniako sedazio
sedación paliativa	sedazio aringarri
sudoración	izerdi/izertza
suministrar	eman
toracocentesis	torakozentesi
transfusión	transfusio
traslado	lekualdaketa/lekualdatze
tratamiento	tratamendu
valoración física	balorazio fisiko
valoración sociofamiliar	balorazio soziofamiliar
vestirse	jantzi
vigilancia	zainketa

Lanerako tresnak, gaiak, gailuak...

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
anticoagulante	antikoagulante
apósito	apositu
baño adaptado	komun egokitu
bolus directo	bolo zuzen
bomba electrónica	ponpa elektroniko
bomba electrónica de perfusión	perfusio-ponpa elektroniko
cama articulada	ohe artikulatu
catéter	kateter
infusor continuo	etengabeko infusore
infusor intermitente	aldizkako infusore
palomilla	tximeleta
silla de ruedas	gurpil-aulki
sonda	zunda

Bestelakoak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
a gravedad	grabitatez
administrativo/a (adjektiboa)	administratibo / administrazio-
administrativo/a (lanpostua)	administrari
alarma	alarma
alta clínica	alta kliniko
analgésico	analgesiko
anamnesis	anamnesi
antecedente personal	aurrekari pertsonal
apellido	abizen
apoyo	sostengu/laguntza
apoyo emocional	laguntza emozional
área de cobertura	hedadura-eremu
asintomático	asintomatiko/sintomarik gabeko
asistencia especializada	asistentzia espezializatu
atención primaria	lehen mailako arreta
calidad de vida	bizi-kalitate
cena	afari
centro de salud	osasun-zentro
cita	hitzordu
código	kode
comer	jan
comida	bazkari
complicación	konplikazio / arazo

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
comprensión	ulermen
condición higiénica	egoera higieniko/higiene-egoera
condolencia / pésame	dolumin / atsekabe
consentimiento	baimen / onespen
consulta	kontsulta
cooperador	laguntzaile
creencia espiritual	ideia espiritual
creencia religiosa	ideia erlijioso
cuidador/a	zaintzaile
desayuno	gosari
dormido	lo
dosis	dosi
empeoramiento	txartze / okerragotze/okerrera egite
encarnizamiento terapéutico	tematze terapeutiko
endovenoso/a	zain barneko
enfermo/a agudo/a	gaixo akutu
enfermo/a crónico/a	gaixo kroniko
entrecejo	begitarte
equipo	lantalde
estabilidad de antibióticos en bombas de perfusión	antibiotikoen egonkortasuna perfusio-ponpetan
estímulo verbal	ahozko estimulu
estreñimiento	idorreri
eutanasia	eutanasia
familia	sendi/familia

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
familiar	senide/senitarteko
fármaco	farmako/botika/medikamentu
fuera de horario	ordutegiz kanpo
habla	mintzamen
hemoderivado	hemoderibatu
hospitalización a domicilio	etxeko ospitalizazio
incapacitado	ezindu
incurable	sendaezin/sendagaitz
indicación (por)	aginduta/indikatura
indicación de catéter	kateterra indikatzea/agintzea
índice Barthel	Barthelen indize
índice Karnofsky	Karnofskyren indize
índice Ramsay	Ramsay-ren indize
infeccioso	infekzioso
inminente	berehalako
integridad cutánea	larruazalaren osotasun
interconsulta	sail arteko
interconsultor	sailen arteko kontsultore
ir al retrete	komunera joate
jefe/a de servicio	zerbitzuburu
juicio clínico	iritzi kliniko
moribundo	hiltorian dagoen
motivo de ingreso	ingresatzeko arrazoi
negativo/a	ezezko
neurodegenerativo	neurodegeneratibo

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
no urgente	ez-larri
nombre	izen
observación	ohar
ocasional	aldizkako
oído (sentido)	entzumen
oral	ahotiko/ahotik
orientado	orientatu
paciente terminal no oncológico	paziente terminal ez-onkologiko
paliatividad	aringarritasun
parte blanda	zati bigun / atal bigun
placebo	plazebo
plan terapéutico	plan terapeutiko
planteamiento terapéutico	planteamendu terapeutiko
portador/a	eramaile
postoperatorio	ebakuntzaondo / operazio oste
problema psiquiátrico	arazo psikiatriko
problema social	arazo sozial / gizarte-arazo
puesta en común	bateratze-lan
residente	egoiliar
rotación	errotazio
sabor	zapore/gustu
seguimiento	segimendu
signo	zeinu/seinale
síntoma guía	sintoma gidari
síntoma refractario	sintoma errefraktario

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
somnoliento	logura den
subcutáneo	larruazalpe / larrupeko
tacto	ukimen
tracto urinario	gernubide / gernu-traktu
traslado (a)	(-ra) eramate
urgencia	larrialdi
urgente	larri / premiazko / presazko
valor	balio
verdad tolerable	egia onargarri
vía	bide
vía endovenosa (por)	zain barnetik
vía oral (por)	ahotik
vía subcutánea (por)	larruazalpetik
visión	ikusmen

4. Material lagungarria (hiztegiak, kontsulta-zerbitzuak, itzultzaileak...)

Gramatika, idazkera, estiloa

- *Euskara Batuaren Eskuliburua*, Euskaltzaindia
 - *Sareko euskal gramatika*, EHU
 - *Euskararen gramatika*, Euskaltzaindia
 - *Berriaren estilo liburua*, Berria
 - *IVAPeko estilo liburua*, IVAP
 - *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia
-

Hiztegiak

- *Elhuyar*
 - *Euskalterm*
 - *Erizaintzako hiztegia*
 - *Administrazio sanitarioko hiztegia*
-

Zuzentzaile ortografiko-lexikoak

- *Hobelex*, UZEI
 - *Xuxen*, Elhuyar eta IXA
-

Itzultzaile automatikoak

- *Elia*, Elhuyar
 - *Itzuli*, Eusko Jaurlaritza
-

Kontsulta-zerbitzuak

- *Zalantzen txokoa*, Euskaltzaindia
- *Dudanet*, IVAP
- *Osasun Eskola*, Intranet
- *Ikasbil*, HABE
- *EHUtsi*, EHU
- *EIBZ*, Nafarroako Gobernua

Euskararen tresnak eta beste baliabide batzuk

- *Euskarazko softwarea*, Eusko Jaurlaritza

Euskararen normalizazioa Osakidetzan

- *III. Euskara Plana 2022 - 2028*
 - *Osakidetzaren Euskarazko Estilo Liburua*
 - *Osakidetzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko protokoloa*
 - *Osakidetzako langileentzako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak*
 - *Euskaraz lan egiteko trebakuntza-ikastaroak*
 - *Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko eta baliokidetzeko prozesuak*
 - *Familiako eta Komunitateko Erizainen eskuliburua*
 - *Medikuntza orokorreko eskuliburua*
 - *Osatuberri* aldizkaria
-

